

ZEIN KIROL EGINGO ZENUKE?  
*¿qué deporte harías?*



1983.urtetik...

Un año más bajamos la persiana de la temporada deportiva, con 35 años a nuestras espaldas, trabajando por el deporte en Lasarte-Oria, por nuestros hijos, nietos, amigos, por llevar el nombre de nuestra localidad a través del ámbito deportivo.

El año comenzó torcido, después de 34 años el torneo de fútbol-sala local, santo y seña de este Club, no pudo organizarse por falta de personal para ello. La sección de fútbol-sala decidió comenzar otra andadura y este Club no tuvo los resortes suficientes para mantener el torneo. Pero lo más curioso de esta situación, viene determinado por el convenio firmado por parte del Ayuntamiento con una empresa privada para organizar el torneo con una subvención de 6000€, curioso el dato. En 34 años de andadura 1700€ ha sido el aporte económico del Ayuntamiento a este torneo, en forma de trofeo para el campeón, un aplauso cerrado a esta actuación.

Por otra parte, era un año de ilusión teniendo en cuenta las iniciativas tomadas para la realización de otro espacio deportivo, pero desgraciadamente, parece que se encuentra estancado. No hay mucha información al respecto, pero lo que parece claro es que no hay un PLAN B que permita a tod@s los lasarteoria-



tarras disfrutar de unas instalaciones acordes al siglo XXI. Los problemas persisten, no han desaparecido, son graves tanto por la saturación de instalaciones como por la calidad de algunas de ellas. Dicen que hablando se entiende la gente, así sea, pero rápido.

Tenemos que felicitarnos por el aumento del deporte en nuestro Club, y en especial del deporte femenino. Esperamos que la tendencia al alza se mantenga por el bien de un Club que impulsa la igualdad de género en todas sus actuaciones.

En una familia deportiva tan grande como esta, los resultados deportivos son de todos los colores; pero, lo fundamental viene determinado por el impulso del deporte tanto federado como de ocio con nuestra gente, con los lasarteoriatarra que así lo desean. Si los padres/madres, jugadores... son capaces de interiorizar esta idea, estaríamos en competiciones deportivas de más nivel. Esperemos que estas líneas sirvan para la reflexión de todos.

Para finalizar, agradecer a nuestros deportistas, a sus familias, patrocinadores y al conjunto de voluntarios por su apoyo y confianza, que permiten a este club seguir trabajando año tras año por una sociedad y un pueblo más deportivo.

Denek dakite David Heras lasarteoriatarra Goya saria irabazi duela 'Handia' filmeko efektu bereziengatik. Baina, gutxi dakite Ostadarreko boleibol ataleko sortzailea eta entrenatzailea izan zela... Ostadar Kirol Fundazioa aurkeztu genuen egunean gurekin egon zen futbol zelaian egin genuen argazkian. Zeinen gazteak ginen... Zorionak David!!



Beste urte batez kirol denboraldiari agur esaten diogu. Jada 35 urte Lasarte-Oriako kirolaren alde, gure seme-alaben alde, bilobeen alde, lagunen alde lan egiten eta gure herriaren izena kirolarekin bat zabalduz.

Denboraldia oker hasi zen. Elkar-tearen sorrera izan den areto-futbol txapelketa herrikoia 34 urte ondoren ezin izan dugu antolatu, hau antolatzeko jendea falta zela eta. Areto-Futbol federatuko atalak beste bide batetik jarraitzea erabaki zuen eta Elkar-te honek ez du baliabiderik izan txapelketa aurrera aterahal izateko. Egoera honen ondorioz, Udalak hitzarmen bat sinatu du enpresa pribatu batekin txapelketa antolatu dezan 6.000 euroren truke. Datu bitxia. Udalak elkar-teari hogeita hamalau urtetan egin dion ekarpena 1700 eurokoa izan da, txapelketako irabazlearen trofeo moduan. Txalo-zaparrada jokaera horri.

Beste aldetik, ilusioz ekin genion denboraldiari herrian kirol-gune berria eraikitzeko lanean ari zirelako, baina zorritzarrez gai hau geldituta dago. Haratago, Plan Brik ere ez dago martxan. Arazoak egon badaude, eta larriak gainera: batetik, instalazioak lepo daudelako -ez



dugu leku nahikorik entrenatzeko- eta bestetik, instalazio batzuk zaharkituta daudelako. Hitz eginez ulertzen omen gara, hala izan dadin, eta lehenbailehen.

Dena den, pozik egoteko ere arrazoiak baditugu. Izan ere, gero eta kirolari gehiago dugulako klubean, eta bereziki emakumezkoen kirolean. Espero dugu, bere jarduera guztietan genero-berdintasuna bultzatzen duen klubaren onuragatik goranzko joera mantendadila.

Kirol-familia ugaria honetan, kirol emaitzak kolore anitzetakoak dira. Baina, funtsezkoa gure herriko jendearekin kirola sustatzea da, bai kirol federatua, bai aisiako kirola ere. Kirolariak, hauen senideak... ideia hau barneratuko balute, kirol maila altuagoko lehiaketetan egongo ginatke. Lerro hauek hausnarketarako balio izango zaizkizuelakoan idatzi ditugu.

Bukatzeke, bihotzez gure esker ona kirolari guztiei, hauen senideei, patrozinatzaileei, babesleei, eta bolondres talde handiari, zuen babesarengatik eta konfiantzagatik, zuei esker urterik urte herriko kirolaren alde lanean jarraitu dezakegulako.

## AUZOLAN SARIA



Andoni Iparragirrearen txistu doinuak hasiera ematen dio Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoari eta urte askotan areto-futbol herrikoiko finalei ere. Andoni Lasarte-Oriarrak muxikoko doinuaren sortzaileetako bat izan da eta herriko edozein festatan ikus dezakegu txistua eta danbolina eskuan duela: euskal inauterietan, plaza dantzan, Sorgin Dantzan, jaietako dieran, Euskararen maratoian... Honengatik guztiarengatik, Andoni, aurten zuretzat bihotzez Auzolan Saria. Txistu doinu horiek ez daitezela galdu.

## BOLOAK ETA TOKA

Los representantes de la sección recorren los diferentes pueblos de la provincia llevando nuestro nombre en las diferentes tiradas, ilusión no falta. Sería necesaria la incorporación de personas más jóvenes, tanto hombres como mujeres, para que esta sección tenga el futuro asegurado. Mientras tanto, la sección seguirá organizando las tiradas de San Pedro, además de las correspondientes a la propia competición guipuzcoana. Desde aquí hacemos un llamamiento a aquellas personas que lo deseen se acerquen a las instalaciones del bolatoki, prueben, disfrutarán.



## KROSA

Berezia izan zen pasa den urriaren 29ko Kros Herrikoien 22. edizioa. Berezia, aspaldiko partez ibilbidean aldaketak egin genituelako. Eta are bereziagoa, aldaketa horiek egitera bultzatu gintuen arrazoiatatik.

Izan ere, 2016ko frogaren ondoren, pasa den urtean 1go Roler Herrikoia antolatzeke erronka jarri genion geure buruari. Baita gaintu ere. 60 bat lasterkari izan genituen gure artean, eta lasterketa jarraitu zuten herritarrak txundituta geratu ziren Gipuzkoako herri ezberdinetatik etorritako patinatzaileek eskainitako ikusizunarekin. Gu ere, gustura geratu ginen eta datorren urrian bigarren edizioa izango dugula aurreratzeko moduan gaude.

Erronka bat izan zela aipatu dugu, eta ez gabiltza egoera puzten. Rolerrak

gure artean izateko ibilbidean aldaketak egin behar izan genituen korrikalarien eta patinatzaileen elkarbizitza bermatzeko, batez ere lehendabiziko kilometroetan. Eta aldaketak beti korapilatsuak izaten diren arren, kasu honetan, hoberako izan zirela nabarmendu zuten korrikalariak eta baita ikusleek ere. Kale Nagusiko giroak oiloipurdia jarri zien korrikalari askori, eta nahigabeen, animu eta oihu artean erritmoa bizkortu zuenik ere izan zen.

Bizkorrago edo astiroago, guztira 939 partehartzaile pasa ziren helmugatik. Eta zer esan Korrika Festaz. Partehartzea helduena baina handiagoa izan da bigarren urtez. Harrobia bermatuta daukagu, baina Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia antolatzen jarraitzeko arnas berria gustura jasoko genuke. Inor animatzen da?



Argazkia: Mainer Etxezarreta

## RUGBY TALDEA

Desde sus inicios, los Beltzak, han apostado por la Eskola, "la formación en la base, es la clave del éxito" era y es, uno de sus fundamentos. Esta temporada, esos fundamentos han sido refrendados con la presencia de Gabi Gavilán, Alex Saleta y Paola Vega en las Academias Nacionales de la Federación Española de Rugby. Y de ellos, tanto Alex Saleta como Paola, han sido convocados para los Campus de Alto Rendimiento de la Federación que se celebran en Madrid. Alex estuvo en las pasadas navidades y Paola acudirá en el próximo mes de Julio. Además de la progresión en el juego, motivada en parte por la anexión con el Babayauto Zarautz Rugby Taldea, donde nuestros jugadores seniors se han consolidado como parte fundamental del equipo; las distintas categorías se ven integradas en una formación con variedad de entrenadores que aportan distintas visiones con un mismo propósito, la mejora del jugador dentro y fuera del campo, abrazando los valores de nuestro deporte.

Esta temporada, el éxito como clubs ha llegado por el conjunto S18, que se ha proclamado campeón de Liga de Euskadi, y 7º clasificado en el Campeonato de España.

Y como broche, los Beltzak celebra-



Argazkia: Beltzak

ran el día 2 de Junio, el II Memorial Aitor Uranga con la presencia de los equipos del Atlético San Sebastian, campeón del primer torneo y que juega en la primera división de Euskal Liga; el Quebrantahuesos Rugby de Huesca, campeón de la Liga Aragonesa en la presente temporada y los Beltzak Lasarteorians, equipo integrado por jugadores vinculados a Lasarte-Oria que o bien militan en distintos clubs, o en su pasado lo hicieron y se reúnen para competir en este torneo.

También, ese mismo día, se jugará el primer torneo femenino de este memorial entre los equipos de Neskak del Hernani y de La Única de Iruña. Y la próxima temporada, más.

## MENDIA

Mendian gora, mendian behera... azken urtean 80 federatu izan ditugu mendiko atalean. Sekzioko ki-deek bakoitza bere kabuz ibili arren, ata-

laren izenean urtean zehar hainbat gauza antolatzen dituzte, besteak beste: Buruntzaldeako Ibilbideen egunean kiroldegiarekin kolaboratzen dute, klasiko bat bilakatzen ari den abenduak 31ko Buruntzako erromeria antolatzen dute -gero eta gazte gehiago igotzen da- eta martxa luzea. Azken hau, Joxean Salsamendik gidatzen du eta aurten Leitzalarrea - Lasarte-Oria egin dute.

Albiste triste bat jaso dugu aurten. Udalatik hitza eman ziguten rokodromo berria gunee berrian izango genuela, baina beste lehentasun batzuk medio, beste urte bete rokodromo leku berean, egoera berean... kalean, alegia.



## TENIS

**A**urtengo denboraldia bukatzean dago eta kontentu egoteko arrazoiak ditugula esan dezakegu: batetik, zortzi eta hamasei urte bitarteko hamasei tenislari ilusioz eta seriotasunez ahaleginu direlako tenisaren sekretuak bereganatzen; bestetik, ikasturte honetan lortu ditugun aurrerapenak aipagarriak direlako; eta azkenik, lehen aldiz helduen taldea osatu dugulako.

Honengatik guztiarengatik eta ohiturei eutsiz, ekainean denboraldiari amaiera emango diogu Tenis Jaiarekin. Bertan, tenis familiako kide guztiak elkartuko gara azken raketazoak jotzeko. Gogoratu, le-



hen urratsak eman ala sakondu nahi duenarentzat Tenis Eskolako ateak zabalik daudela!

## TXIRRINDULARITZA



**O**stadarreko zikloturistek martxoan ekin diote denboraldiari Itsasondoko irteerarekin eta urriaren 28an amaituko dute Getariko San Prudentzian. Tartean Altzora, Mendarora, Otzaurtera, Leitzara... Guztira 2462 km egingo dituzte. Igande goizetan zaharren egoitzatik ateratzen dira. Beraz, zikloturismoa gustuko baduzue bizikleta hartu eta Ostadarreko taldearekin ateratzera anima zaitzete. Aupa ekipo!

## PORRA

**G**iroko Porra asteburu honetan bukatuko da eta sari-banaketa ekainaren 1n, 19:00etan puntu gehien lortzen duen tabernan egingo dugu. Hurrengo Porra, TOURreko Porra uztailaren 7an hasi eta uztailaren 29ra arte luzatuko da; porran parte hartu ahal izateko bete behar dituzuen boletoak eta txirrindularien zerrendak San Pedro jaien ostean ohiko tabernetan utziko ditugu. Porran parte hartzen duzuen guztioi eta nola ez tabernariei mila esker. Beti bezala, informazio guztia gure web gunean arkituko duzue.



## SASKIBALOIA



Denboraldiaren amaierara iritxi gara, urtero bezala jokalariek guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu gure kluba eta gure koloreak Gipuzkoa osotik eramatearengatik. Urte bat gehiago, erakustea guregan daukazuen konfiantza ikaragarria da, bihotz bihotzez ezkerrik asko. Orain oporrak hartu eta hurrengo denboraldia prestatzen jarraituko dugu. Irailtik aurrera gure berri izango duzue...

**1, 2 ta 3 OS-TA-DAR! Irabazi arte... LA-SAR-TE!!!**



## DEPORTE ADAPTADO

Estamos en el 2018 y todavía a veces nos miran con curiosidad. Pero, en Ostadar estamos haciendo todo lo posible para que este deporte se visibilice y se normalice, porque las oportunidades deben de ser para tod@s. En este difícil recorrido suele haber muchas barreras. Algunas incluso barreras mentales de personas "IN? válidas" que no entendemos porque no se ponen en nuestro lugar. ¿Por qué identificar a alguien como diferente, sin pensar qué le gusta y qué podría hacer? ¿O es que acaso a todos nos gusta lo mismo y podemos hacer lo mismo? ¿En qué somos diferentes? ¿En qué somos iguales?

Desde Ostadar Inklusioa estamos trabajando para abrir la puerta a todas aquellas personas que quieran practicar deporte o actividad física. Gracias al club y a entidades que hacen posible que la sec-

ción vaya avanzando, hemos conseguido que seamos un equipo de diferentes gustos y capacidades: chicas y chicos, personas con y sin discapacidad. Todos los que quieren realizar alguna de las actividades que ofrecemos: deportes de equipo en silla de ruedas (baloncesto, balonmano, rugby, juegos recreativos...); deportes individuales en silla de ruedas o de pie (atletismo, slalom, boccia, acondicionamiento físico...) o deportes de agua (natación, surf y piragua).

Ostadar Inklusioa atalean, 30 kirolari baino gehiago gara eta oso ondo pasatzeaz gain, ikasi, elkar-bizitza izan, esfortzatu eta garapen pertsonala izaten dugu besteak-beste. Animatzen zara gurekin parte hartzera? Idatzi iezaiguzu ondorengo korreo elektronikora, ostadar.inklusioa@gmail.com eta ezagutu gaitzazu sare sozialetan (Instagram, Facebook, YouTube).



## IPAR MARTXA

Ipar Martxako taldea jo ta fuego dabil: asteazkenero elkartzen dira ibiltzera joateko eta hilean behin Euskal Herriatik irteera bat egiten dute, aspanogiko martxa dagola gure taldea hara, herrian festaren bat dagola gure taldea hona... Aste Santuan bastoiak eskuan hartuta Menorkara joan dira hamabost bat lagun Cami de Cavals bideko etapa batzuk egitera eta hain gaizki atera zaie, non hurrengo urteko irteeran pentsatzen hasi dira.



## FUTBOL-ESKOLA





Alebina B



Errendimenduzko Alebina



Ohorezko Kadetea



Lehenengo Jubenila



Lehenengo Infantil A



Lehenengo Infantil B



Ohorezko Jubenila



Preferentea



Infantil Txikia



Lehenengo Infantil A



Lehenengo Infantil



Erregionala



Lehenengo Kadetea B



Lehenengo Kadetea A

## ENORME OSTADAR!!!!

Aurtengo denboraldian 14 futbol talde izan ditugu Gipuzkoako zelaietan jokatzen. Denboraldiak denetatik eman digu, baina azpimarratzekoa Nesken Infantil taldearen sorrera da. Lehen aldia da maila honetan neska talde bat dugula eta gure artean jarraitzea espero dugu. Momentu hauetan Preferenteko taldea mailari eusteko kanporaketa partidekin ari da, pena litzateke kategoria hau galtzea. Aupa mutilak!

Aurten, omenaldi xume bat egin nahi diogu Joxe Belartieteari elkarteari eskaini dizkion urte guzti hauengatik eta txapelak dioen bezala "Ostadarreko 8.kolorea izateagatik". Mila esker Joxe!

En cuanto a las inscripciones de la Futbol Eskola, estas serán del 11 al 22 de junio, en la oficina de Ostadar de 18:00 a 20:00 para l@s niños y niñas nacid@s en el 2008-2009-2010.

# 2017-2018 DENBORALDI AMAIERAKO FESTA MAIATZAREN 26EAN TRINKETEAN

**11:00 – 12:00.** Euskal jokoak

**12:00.** Sari-banaketa:

Auzolan saria: **ANDONI IPARRAGIRRE**ri  
Ostadarreko jokalaria jatorrenei sariak

**12:30.** Tercer Tiempo/Hirugarren denbora: Beltzakeko kideek pintxo goxoak prestatuko dituzte jokuetan parte hartu duzuen guztientzat.

Urtero bezala, denboraldiari amaiera emateko festa batekin bukatuko dugu, maiatzaren 26an, trinketeen. Euskal jokoak prestatuko ditugu (soka-tira, zaku karrera, txingak eta lokotxak), ondoren sari-banaketari ekingo diogu eta bukatzeko Beltzak taldeko lagunek jokuetan parte hartzen dutenentzat 3.denbora prestatuko dute.

Bertan ikusiko dugu!

Como cada año, despediremos la temporada con una fiesta. Este año haremos la celebración en el trinquete. Empezaremos con unos juegos (soka-tira, carrera de sacos, txingas...), a continuación la entrega de premios y para finalizar los amigos de Beltzak Errugby Taldea prepararan el tercer tiempo para los que participeis en los juegos.

Nos vemos en la fiesta!

[www.ostadarskt.eus](http://www.ostadarskt.eus)



ostadarskt



ostadarskt



**OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK**  
eskerrak eman nahi dizkie, TXINTXARRI aldizkariari, TXEMA VALLESi eta baita gure babesle guztiei ere, denboraldi honetan eskainitako laguntzarengatik.

